2013ko ekainaren 1ean, merkataritza-kontratua sinatu zen VISESArekin, BIDEBlk bere zerbitzu profesionalak emateko VISESAren jabetzakoak diren zenbait elementu libreraren kanpo-merkaturatzerako (salmenta, alokairua eta/edo alokairua erosteko aukerarekin): Basauriko Basozelaiko promozioan kokatutako garaje eta lokal libreak. Gerora, Sarratuko lokaletara ere zabaldu da.

VISESAk emandako zerbitzu profesionalaren truke ordaindu beharreko kopurua salmenta-prezioaren % 1,85ean ezartzen da BEZik gabe elementu libreen sal-

mentetarako eta zergarik gabe. Hala, BIDEBlk ordaindu beharko ditu enkargu hori burutzeko beharrezkoak diren gastu guztiak (bulego-gastuak, telefonoa, materiala, leku-aldaketak, publizitatea, etab...).

VISESA sozietate publikoak erabaki du elementu horiek merkaturatzen hastea alokairuan ere bai eta erosteko aukerarekin.

Ez da bestelako eragiketarik gauzatu.

## Publikoarentzako arretaren eragina

[illegible]

## SOLOARTEKO APARKALEKUA

Udalbatzak 2013ko urtarrilaren 31ko ohiko osoko bilkuran onetsi zuen kontratazio-espediente zuzenean esleitzeko udalaren jabetzakoak diren Soloarteko Garajeko 275 partzelen alokairua erosteko aukerarekin. Era berean, esleipenak eta horren ondoriozko kontratuak zuzentzeko baldintzen plegua onetsi zen eta erabaki zen esleipen-prozedura irekitzea, zehazki, iragarki bat txertatuz udalaren kontratatzailearen profilean.

Udala prozedura hori luzatuz joan da urtero.

Partzelen esleipena, formalizatu beharreko kontratuak eta alokairuen geroko kudeaketa behar bezala antolatze aldera, 2013ko otsailaren 1ean, Alkatetzaren 323/2013 Dekretua eman zen. Horren bidez, xedatu zen kudeaketa BIDEBI BA-

SAURlri aginduko zitzaiola, Basauriko Udalaren izenean eta ordezkaritzan eta horren kontura burutuko duena. Kudeaketa-agindu horren barruan sartzen dira eginkizun hauek: aurretik udalean erregistratutako eskaerak jasotzea; alokairu-kontratuak idaztea; esleipendunei sinadurarako hitzordua ematea eta alokairuen segidako traktua kudeatzea.

Baldintzen pleguan ezartzen zen udalaren jabetzakoak diren 275 partzeletatik 62 erreserbatuta zeudela gainerako partzelak esleitu arte edo udalak berak bestelako xedapen bat eman arte udalbatzaren ebazpenaren bidez.

Jarraian agertzen dira urtero % 1 igo diren alokairuaren prezioak (BEZ gabe).

|                    | 2013  | 2014  | 2015  | 2016  | 2017  | 2018  | 2019  |
|--------------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| 1. sotoko partzela | 60,00 | 60,60 | 61,21 | 61,82 | 62,44 | 63,06 | 63,69 |
| 2. sotoko partzela | 55,00 | 55,55 | 56,11 | 56,67 | 57,24 | 57,81 | 58,39 |



Kudeatzeko agindu hori eman zenetik orain arte igarotako denboran, 196 alokairu-kontratu sinatu dira erosteko aukerarekin eta 55 baja eman dira, kontratua behar baino lehenago amaitzea ekarri dutenak.

Hurrengo taulan islatzen dira garaje-partzela hauen alokairuaren bilakaera eta bere igoera 2019ko ekitaldian:

|                                      | INDARREKO KONTRATUEN BILAKAERA URTEKA |      |      |      |      |      |      |
|--------------------------------------|---------------------------------------|------|------|------|------|------|------|
|                                      | 2013                                  | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
| Alokatutako partzelak abenduaren 31n | 111                                   | 109  | 118  | 113  | 114  | 131  | 141  |



Alokairuen 2019ko aldakuntzak honako koadro honetan islatzen dira:

| 2019             |              | 1. solairua |          | 2. solairua |          |         |
|------------------|--------------|-------------|----------|-------------|----------|---------|
| Aldaketaren hila | Aurreko hila | Altak       | Bajak    | Altak       | Bajak    | Guztira |
| Urtarrila        | 131          | 0           | 1        | 2           | 0        | 132     |
| Otsaila          | 132          | 0           | 0        | 1           | 2        | 131     |
| Martxoa          | 131          | 1           | 0        | 2           | 0        | 134     |
| Apirila          | 134          | 0           | 0        | 1           | 1        | 134     |
| Maiatza          | 134          | 0           | 0        | 1           | 1        | 134     |
| Ekaina           | 134          | 0           | 0        | 3           | 1        | 136     |
| Uztaila          | 136          | 0           | 0        | 0           | 0        | 136     |
| Abuztua          | 136          | 0           | 0        | 1           | 0        | 137     |
| Iraila           | 137          | 0           | 0        | 1           | 0        | 138     |
| Urria            | 138          | 0           | 0        | 1           | 0        | 139     |
| Azaroa           | 139          | 0           | 0        | 3           | 0        | 142     |
| Abendua          | 142          | 0           | 0        | 1           | 2        | 141     |
|                  |              | 0           |          |             |          |         |
| <b>Guztira</b>   |              | <b>1</b>    | <b>1</b> | <b>17</b>   | <b>7</b> |         |



Jarraian, Basauriko Udalak alokairuekin lortutako diru-sarrerak eta aurrezpena islatzen dira, aukera eman duelako alokatutako partzela horien jabeen erkidegoaren kuotak errentariek ordaintzea.

| 2019           |                   |                                |                          |
|----------------|-------------------|--------------------------------|--------------------------|
| Hilabetea      | Diru-sarrerak     | Jabeen-erkidegoaren aurrezpena | Udalaren etekina guztira |
| Urtarrila      | 7.919,48 €        | 880,00 €                       | 8.799,48 €               |
| Otsaila        | 7.861,09 €        | 873,33 €                       | 8.734,42 €               |
| Martxoa        | 8.041,56 €        | 893,33 €                       | 8.934,89 €               |
| Apirila        | 8.041,56 €        | 893,33 €                       | 8.934,89 €               |
| Maiatza        | 8.041,56 €        | 893,33 €                       | 8.934,89 €               |
| Ekaina         | 8.158,34 €        | 906,67 €                       | 9.065,01 €               |
| Uztaila        | 8.158,34 €        | 906,67 €                       | 9.065,01 €               |
| Abuztua        | 8.216,73 €        | 913,33 €                       | 9.130,06 €               |
| Iraila         | 8.275,12 €        | 920,00 €                       | 9.195,12 €               |
| Urria          | 8.333,51 €        | 926,67 €                       | 9.260,18 €               |
| Azaroa         | 8.508,68 €        | 946,67 €                       | 9.455,35 €               |
| Abendua        | 8.450,29 €        | 940,00 €                       | 9.390,29 €               |
| <b>Guztira</b> | <b>7.919,48 €</b> | <b>880,00 €</b>                | <b>8.799,48 €</b>        |

2020ko urtariletik aurrera, baldintzen pleguan ezartzen zen bezala, alokairuaren prezioak % 1 igoko dira eta honela geratuko dira:



|                                 | Año 2020 |
|---------------------------------|----------|
| 1. sotoko partzelaren alokairua | 64,33    |
| 2. sotoko partzelaren alokairua | 58,98    |

Txosten honetan islatu beharreko beste alderdi bat da udal sozietateak partzela hauek alokairuan eskuratzeko aukera iragartzeko burutu dituen jarduketak:

A. BIDEBI BASAURI S.L. Sozietatearen webgunean iragartzen da: <http://bidebi.basauri.net/es/soloarte>

B. Enpresaren bulegoen kanpoaldean plaka bereizgarri bat dago.



### Publikoarentzako arretaren eragina

| HILABETEA      | Tel.       | e-posta | Presentziala |
|----------------|------------|---------|--------------|
| Urtarrila      | 8          | 1       | 32           |
| Otsaila        | 1          | 0       | 17           |
| Martxoa        | 11         | 2       | 13           |
| Apirila        | 6          | 0       | 9            |
| Maiatza        | 5          | 0       | 13           |
| Ekaina         | 4          | 0       | 5            |
| Uztaila        | 0          | 0       | 12           |
| Abuztua        | 0          | 0       | 8            |
| Iraila         | 0          | 0       | 12           |
| Urria          | 2          | 0       | 9            |
| Azaroa         | 0          | 0       | 16           |
| Abendua        | 12         | 1       | 77           |
| Guztirakoak    | 49         | 4       | 223          |
| <b>Guztira</b> | <b>276</b> |         |              |

## BIRGAITZEA

Eusko Jaurlaritzari proposatu zaio Basauriko Udalak, BIDEBI BASAURI, S.L. udal sozietate publikoaren bidez, eraikitako ondarea birgaitzeko diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, diru-laguntza horiek sustatzea eta horiek izapidetzea.

Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, bere bigarren xedapen gehigarrian, ahalmena ematen dio etxebizitzaren arloan eskuduna den saileko sailburuari udal hirigintza-sozietateekin alde biko hitzarmenak sinatzea baimentzeko, Eusko Jaurlaritzaren eta interesdunen arteko bitartekariak izan daitezen birgaitzerako laguntzen kudeaketan.

Elkarriketak izan ditugu Eusko Jaurlaritzarekin dagokion lankidetz hitzarmena izapidetze eta sinatze aldera; horren bidez, birgaitzeko jarduketa pribatuei dagokienez, hauxe egiteko aukera egongo da:

- a) Gaitasun ekonomiko urria duten etxebizitza-erabiltzaileekin hitzarmenak ezartzea, sozietateari ahalmena emanez etxebizitza horietako birgaitze-lanak egiteko. Edonola ere, birgaituko den etxebizitzaren erabiltzailearentzat, hitzarmen horretan itundutako baldintza ekonomikoak aipatutako dekretuan adierazitakoak baino onuragarriagoak izango dira.
- b) Ekimen pribatuari birgaitze-jarduketetarako laguntza emateko planak egitea.
- c) Birgaitzerako laguntza-eskaerak jasotzea eta egiaztatzea, gerora organismo eskudunari bidaltzeko.
- d) Jarduketa pribatuak kontrolatzea, sustatzea, kudeatzea, koordinatzea eta horien inguruko aholkularitza ematea.
- e) Birgaitze-lanak egin bitartean, lan horiek eragindako pertsonen behin-behinean ostatu emateko planak egitea.





Horrela, udal sozietateak burutu nahi diren birgaitze-proiektu desberdinei buruzko informazioa eta aholkularitza eman ahalko die jabeen erkidegoei eta proiektuak haiekin prestatu ere bai, espedientearen eta laguntzak lortzeko beharrezko dokumentazioaren izapidetze zuzena erraztuz, bai udal-egoitzan, bai Eusko Jaurlaritzaren bulegoetan.

Zehazki, 14.3. f) artikulua adierazten du Administrazio Kontseilua-  
ren ahalmena dela hirigintzaren arloan edo beste edozein arloan organismo publikoekin, erakunde pribatuekin eta partikularrekin sinatzen diren hitzarmenak onestea. Hortaz, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuaren Aginduaren bidez baimendu ostean, horrek onestea proposatu egingo da.

Baliteke etorkizunean jarduketa-ildo hori sendotzea, hiri-berroneratzeko politikak bultzatzen ari direlako eta, neurri handi batean, horiek ohiko higiezinaren sustapen eragiketa klasikoak ordeztzen ari direlako.

Araudiak ezartzen du derrigorrezkoa dela 50 urtetik gorako antzinatasuna duten bizitoki-eraikinen kontserbazio beharra egiaztatzea ezarritako egutegiari jarraiki. Horretarako, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa izeneko dokumentu tekniko bat egin behar da, eraikinen egoera, egiturazko segurtasuna eta balizko urritasunak, bere energia-eraginkortasuna eta egiturazko segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren doikuntzak aztertuko dituen.

Zentzu horretan, Basaurin, 2019ko abenduaren 31ra arte, Eraikuntza-  
ren Ikuskapen Teknikoko txosten hauek aurkeztu dira:

| EKITALDIA      | EIT DUTEN ERAIKINAK |
|----------------|---------------------|
| 2011           | 5                   |
| 2012           | 9                   |
| 2013           | 25                  |
| 2014           | 78                  |
| 2015           | 122                 |
| 2016           | 82                  |
| 2017           | 131                 |
| 2018           | 223                 |
| 2019           | 79                  |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>754</b>          |

Horrela dago jasota **EUSKOREGITE** erregistro publikoan

Gogorarazi behar da Eraikinen Ikuskapen Teknikoa higiezin horrek 50 urte betetzen dituen ekitaldian konputatzen dela, azterlan hori noiz egin den gorabehera.

Eusko Jaurlaritzak eta Basauriko Udalak diru-laguntza ekonomiko eta finantzarioak ematen dituzte birgaitze-obren dokumentuak idazteko eta obrak egiteko; hain zuzen ere, diru-laguntza horiek dagokion administrazio-prozeduraren bidez eskatu behar dira eta, betiere, horiek egiteko premia egiaztatuz.

Orain arte, BIDEBI BASAURI SL udal sozietateak honako birgaitze-espediente hauek izapidetu ditu:

|                |               | ERAIKINAK | ETXEBIZITZAK | AURREKONTUA         |
|----------------|---------------|-----------|--------------|---------------------|
| 2014           | REH_1/2014/SB | 1         | 8            | 18.185,80 €         |
|                | REH_2/2014/SB | 1         | 10           | 58.636,00 €         |
|                | REH_3/2014/SB | 0         | 1            | 6.010,57 €          |
|                |               | <b>2</b>  | <b>19</b>    | <b>82.832,37 €</b>  |
| 2015           | REH_1/2015/SB | 1         | 9            | 58.876,18 €         |
|                | REH_2/2015/SB | 1         | 8            | 19.267,35 €         |
|                | REH_3/2015/SB | 1         | 10           | 19.250,00 €         |
|                | REH_4/2015/SB | 1         | 35           | 88.108,70 €         |
|                | REH_5/2015/SB | 1         | 8            | 12.500,00 €         |
|                | REH_6/2015/SB | 1         | 8            | 52.361,00 €         |
|                | REH_7/2015/SB | 1         | 6            | 31.962,26 €         |
|                | REH_8/2015/SB | 1         | 8            | 58.278,76 €         |
|                |               | <b>8</b>  | <b>92</b>    | <b>340.604,25 €</b> |
| 2016           | REH_1/2016/SB | 0         | 1            | 3.601,00 €          |
|                | REH_2/2016/SB | 1         | 4            | 17.085,50 €         |
|                | REH_3/2016/SB | 1         | 8            | 42.573,00 €         |
|                | REH_4/2016/SB | 0         | 1            | 3.469,83 €          |
|                |               | <b>2</b>  | <b>14</b>    | <b>66.729,33 €</b>  |
| 2017           | REH_1/2017/SB | 1         | 10           | 13.345,50 €         |
|                | REH_2/2017/SB | 1         | 3            | 36.804,28 €         |
|                | REH_3/2017/SB | 1         | 8            | 89.729,40 €         |
|                | REH_4/2017/SB | 1         | 25           | 60.674,22 €         |
|                |               | <b>4</b>  | <b>46</b>    | <b>200.553,40 €</b> |
| 2018           | REH_1/2018/SB | 1         | 8            | 17.324,00 €         |
|                |               | <b>1</b>  | <b>8</b>     | <b>17.324,00 €</b>  |
| 2019           | REH_1-2019/SB | 1         | 10           | 22.620,20 €         |
|                | REH_2-2019/SB | 1         | 44           | 650.000,00 €        |
|                | REH_3-2019/SB | 1         | 5            | 7.610,00 €          |
|                | REH_4-2019/SB | 1         | 20           | 72.850,09 €         |
|                |               | <b>4</b>  | <b>79</b>    | <b>753.080,29 €</b> |
| <b>GUZTIRA</b> |               | <b>17</b> | <b>179</b>   | <b>708.043,35 €</b> |



## Publikoarentzako arretaren eragina

| HILABETEA | Kontsulta egiteko bidea |         |           | Kontsulta mota               |        |         |
|-----------|-------------------------|---------|-----------|------------------------------|--------|---------|
|           | Tel.                    | e-posta | Presentz. | Birgaitzea<br>Diru-laguntzak | I.T.E. | OHIKOAK |
| Urtarrila | 0                       | 0       | 9         | 1                            | 0      | 8       |
| Otsaila   | 5                       | 0       | 17        | 11                           | 0      | 11      |
| Martxoa   | 2                       | 0       | 66        | 7                            | 0      | 61      |
| Apirila   | 4                       | 1       | 5         | 7                            | 0      | 4       |
| Maiatza   | 2                       | 6       | 26        | 1                            | 1      | 31      |
| Ekaina    | 6                       | 0       | 12        | 5                            | 0      | 13      |
| Uztaila   | 2                       | 0       | 10        | 4                            | 1      | 7       |
| Abuztua   | 0                       | 0       | 16        | 1                            | 0      | 15      |
| Iraila    | 5                       | 0       | 11        | 2                            | 0      | 14      |
| Urria     | 1                       | 1       | 13        | 6                            | 0      | 9       |
| Azaroa    | 4                       | 0       | 8         | 5                            | 1      | 6       |
| Abendua   | 0                       | 0       | 3         | 1                            | 0      | 2       |
|           |                         |         |           |                              |        |         |
|           | 31                      | 8       | 196       | 51                           | 3      | 181     |
|           |                         |         |           |                              |        |         |
|           | 235                     |         |           | 235                          |        |         |

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, TECNALIArekin elkarlanean eta Donostiako Etxegintzak, Ensanche 21 eta Bidebi Basauri udal sozietateekin batera, partzuergo bat eratu dute eta birgaitzea sustatzeari buruzko proposamen bat egin dute, hori Europako Batzordearen aurrean aurkezte aldera.


Hain zuzen ere, **Europako AGREE Proiektua** da eta LC-SC3-EE-11-2018 Deialdia: "Aggregation – Project Development Assistance. Focus Area: Building a low-carbon, climate resilient future" Horretan, Basauriko Udalak third party gisa hartzen du parte, hau da, udal sozietatearen jarduketa babestuz eta osatuz.

Lortu nahi den emaitza hau da: estrategiak eta tresnak garatzea jabeen erkidegoek bere eraikinen eta etxebizitzaren birgaitze eraginkorra egiteko eta horien irisgarritasuna hobetzeko.

Basauriko Udalbatzak dagoeneko onetsi egin du hasiera batean Hiri-antolamendurako Plan Orokorren berrikuspen-dokumentua, hiru gune identifikatu eta mugatzen dituen. Hala, adierazi behar da horren ezaugarriak bat datozela Europako ekintza honek eskatutakoekin. Horrez gain, finkatutako hiri-egituran badaude birgaitu beharko diren antzeko eraikuntza-piezak.

Proposamena idatzi da eta Europako Batzordeari aurkeztu zaio; horrek proposamena onetsi du.

Europako finantziazioaren kargura, ereduzko birgaitze-aurreproiektu bat garatu ahalko da eta parte-hartzeko, hedapeneko eta birgaitzea babesteko ekintzak burutuko dira jabe-erkidego interesdunekin batera. Ez da birgaitze-obra finantzatzen. Gainera, Bidebik udal mailan eta erkidego mailan dauden laguntzei buruzko informazioa emango du eta horien izapidetzea erraztuko du.



### 3.4. BALIABIDEAK KUDEATZEA

#### • Lan-arloko kudeaketa:

**A)** Laneko Arriskuen Prebentziorako eta Osasunaren Zaintzarako indarrean dagoen araudia betez, GESPREVEN enpresari kontratua berritu zaio, honako lan hauek egin ditzan:

- Espezialitate teknikoak
- Osasunaren zaintza
- Osasun-azterketak.

**B)** BIDEBI BASAURI S.L.ko langileentzako bizitza-asegurua eta ezintasun iraunkor osoari zein absolutuari dagokiena berritu dira EGIASA artekaritzarekin, urtebeterako, 2019ko abenduaren 13tik hasita.

Aseguruak estaliko dituen arriskuak eta arrisku horiei dagozkien kalte-ordainak Basauriko Udaleko langileentzat indarrean dauden berdinak dira.

**C)** Enpresako administratzaileen, zuzendaritzaren eta langileen kudeaketaren erantzukizunari aurre egiteko aseguru-poliza berritu da Vadillo Asesores artekaritzarekin, urtebeterako, 2019ko urtarilaren 1etik aurrera.





• **Zergen eta kontabilitatearen arloko kudeaketak eta kudeaketa administratiboak:**

**A)** 2019ko otsailean zehar, ATTEST enpresak sozietatearen 2019ko kontuen ikuskapena egin zuen.

**B)** Enpresako langileek egiten dituzte kontabilitate, nomina, gizarte-aseguru eta zerga-ordainketa lanak.

**C)** 2019ko ekitaldiari dagokionez, Foru Ogasunaren egutegia bete da eta honako zerga hauek ezarritako epean eta moduan aurkeztu dira:

- BEZaren hiru hileroko likidazioak (303).
- BEZaren urteko laburpena (390).
- PFEZaren hiru hileroko likidazioak (110).
- PFEZaren urteko laburpena (190).
- Hirugarrenekin egindako eragiketei buruzko urteko aitorpena (347).
- Sozietateen Zergaren 2016ko likidazioa (200).

**D)** Era berean, kontabilitate-liburuak egin dira (2019ko ekitaldiari dagozkion Liburu Nagusia, Egunkaria, Balantzeak eta Kontuen Egoera Liburua) eta horiek Merkataritza Erregistroan aurkeztu dira, Administrazio Kontseiluaren eta Batzar Orokorraren bileren aktekin batera.

**E)** Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoa behar bezala bete da, zehazki, honela: Datuen Babeserako Estatuko Agentziari artxiboak helaraziz; Udal Segurtasun-dokumentua aldatuz; artxi-bo eta dokumentuen arduradunak eta segurtasun-arduraduna izendatuz; datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideak gauzatzearekin lotutako prozedura ezarritik, etab. Hala, azkenengo araudi-aldaketarako egokitzapena egin da.



- **Merkataritza arloko kudeaketak:**

**A)** Administrazio Kontseiluaren zati bat berritu da (bi kidek uko egin dute eta kide berriak sartu dira).

**B)** Sozietateak dagozkion Akta eta Sozioen Liburua ditu, behar bezala beteak eta eguneratuak.

**C)** Ekintzaileei eta horien nazioartekotzeari laguntzeari buruzko irailaren 27ko 14/2013 Legeak bere 18. artikuluan jaso zuen enpresarien nahitaezko liburuak euskarri elektronikokoan betetzeko eta telematikoki legeztatze beteharra.

Erregistro eta Notariotzen Zuzendaritza Orokorrek gogora ekarri zuen, zenbait ebazpenen bidez, enpresarien nahitaezko liburuak telematikoki legeztatu behar zirela, baina ez zegoen irizpide bateraturik betekizun hori aplikatzeko moduari buruz. Horren ondorioz, paperezko liburuak erabiltzen jarraitu da.

Erregistro eta Notariotzen Zuzendaritza Orokorrek agindu berria argitaratu zuen enpresarien liburuak legeztatze buruzko 2015eko otsailaren 12ko EHAA eta bertan ezarri zituen legeztatze prozesu horrek bete beharreko printzipioak.

Horrenbestez, bere garaian, administrazio-organoak sozietatea-

ren paperezko liburuak ixtea eta horiek telematikoki Merkataritza Erregistrora bidaltzea adostu zuen, aipatutako aginduak adierazitakoari jarraiki. Dagoeneko eginda daude gauza biak.

- **Beste izapide batzuk:**

Aldi baterako lanak egiten dituen enpresa batera jo behar izan dugu zenbaitetan (lan-pilaketak, oporrak eta berezko langileen baimenak), langileria indartzeko edo ordeztzeko, bulegoak zabalik egon zitezen eta zerbitzuaren kalitate egokia bermatzeko, bereziki, jendearentzako arretari dagokionez.

## 3.5 KANPOKO KOMUNIKAZIOA

### A) Nortasun-irudia

Sozietatearen webgunea eta esteka udalaren webgunean. Edukiak mantendu eta eguneratu dira, batez ere, jarduketei eta berriei dagokie-  
nez. Horretarako, zenbait dokumentu eta irudi txertatu dira jarduera-ildo  
bakoitzaren bilakaera ulertzen laguntzeko.

Era berean, Gardentasunari, Informazioa eskuratzeari eta Gobernu Onari  
buruzko 2013ko abenduaren 9ko Legeak eta Toki Administrazioaren arra-  
zionalizazioari eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013  
Legeak xedatutakoa bete da. Besteak beste, horiek betetzeko, herritarrei  
interesatzen zaizkien edukiak argitaratu egin dira webguneen bidez eta,  
eduki horien artean, nabarmentzekoak dira sozietatearen estatutuak,  
ekitaldi bakoitzeko jarduera-memoriak eta kontabilitate-auditoriak eta  
administratzaileen curriculumak.

- Sozietatearen dokumentu-artxiboa eta idatzien sarrera eta irteeren  
erregistroa kudeatzeko aplikazio informatikoaren mantentze-lana,  
lanaren garapena hobetzeko eta dokumentazioa kontrolatzeko.
- VIRTUALWARE enpresa espezializatuak garatutako aplikazio infor-  
matikoaren mantentze-lana; bertan, hirigintza-jarduketa nagusiak,  
obra-proiektuak eta aukerako lursailak jasotzen dira.



Udal webgunetik eta sozietatearen webgunetik hel daiteke garapen informatiko  
horretara, dagozkion esteketatik.

Helburua da modu erraz eta ikusgarri batean erakustea hiriaren eraldaketan  
egondako aurrerapenak eta ukitutako guneek etorkizunean izango duten itxura.

- Aireko argazkiak. DRONEBYDRONE enpresa espezializatua kontratatu  
da hirigintza-eremuen garapenaren eta lurzoru hauen eraldaketaren segi-  
mendua egiteko droneetatik irudiak hartuz.

Emaizta zinez ona izan da eta hartutako irudiak partikularrekin, beste erakun-  
deekin, udaleko langileekin eta abarrekin izandako bileretan erabiltzen dira.



## B) Kudeaketaren kalitatea.

Bidebi Basauri, S.L.k udal sozietateak gaur egun garatutako jarduera eta zerbitzuetan oinarritutako kudeaketa-sistema ezarri zuen 2014an eta sistema horrek ISO 9001:2008 arauaren baldintzak betetzen ditu.

ISO 9001 ziurtapena jaso genuen auditoria independentea egin eta gero eta ziurtapen horren irismena prozesu hauetara hedatzen da:

### HIRIGINTZA-JARDUKETAK DISEINATZEA ETA GARATZEA ETA BASAURI UDALERRIRAKO HIGIEZINEN MERKATUKO ESKAINTZA-ESKARIAREN KUDEAKETA PUBLIKOA EGITEA

Prozesuen mapa hauxe da:



Ekitaldi honetan, **Bidebi Basauri** SLk kalitate-sistema hau behar bezala ezartzea eta garatzea sustatu du.

2019ko ekitaldian, sistema berrikusi da eta kanpo-auditoria arrakastaz gainditu egin da.

### C) Kudeaketaren kalitateari buruzko 2019ko inkestaren emaitzak.


2020an, PROSPEKTIKER SA enpresak txosten bat egin du eta, bertan, BIDEBI BASAURI, S.Lren zerbitzuen erabiltzaileen asebetetze-azterlanaren emaitzak aurkeztu eta aztertu ditu, baloratutako zerbitzu bakoitzaren gai edo ezaugarri garrantzitsuenak identifikatuz.

Datuetan oinarritutako informazio fidagarria lortzeko diseinatutako inkesta baten bidez lortu dira emaitzak. Hain zuzen ere, inkesta Bidebiren zerbitzu hauen erabiltzaileei egin zaie:

- Alokatzeko eta gerora erosteko aukera duten udal aparkalekuen erabiltzaileak.
- Babeseko etxebizitza sustatzeko hirigintzako jarduketa-eremuen erabiltzaileak.
- ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren erabiltzaileak.
- ASAP etxebizitza pribatuak alokatzeko bitartekaritza-programaren erabiltzaileak.
- Ondare eraikia birgaitzeko laguntzen erabiltzaileak.

BIDEBI BASAURI, S.Lren erabiltzaileei inkesta telefonoz egin zaie, zehazki, 2020ko otsailaren 10etik 21era bitartean, udal erakundeak ematen dituen zerbitzuen gaineko asebetetze-mailari buruzko informazio zuzena eta estatistikoki adierazgarria jasotze aldera.

Inkestak anonimoak izan dira eta datuak modu independentean taularatu eta prozesatu dira, horien jatorria gorabehera.



Galdetegia BIDEBI BASAURI S.Lren zerbitzuen 250 erabiltzailek bete dute. Horietatik, 106 (% 42,4) gizonak izan dira eta 134 (% 57,6) emakumeak.

Oro har, erabiltzaileek oso modu positiboan baloratu dute BIDEBI BASAURI, S.L.rekin izandako harremana; izan ere, 10 puntutik batez besteko 8,4ko puntuazioa eman diote. Balorazioa nahiko egonkor mantendu da azkenengo 5 urteotan.

Aurreko urtean bezalaxe, hain puntuazio altu horien barruan, arreta da hoberen balioztatutako alderdia eta puntuaziorik txikiena lortzen duen alderdia kudeaketa, hain zuzen ere, gainerako aldagaiekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, gai zehatzetara bagoaz, aurten ere bai, okerren balioztatutako alderdia izan da instalazioak ez direla egokiak datuen konfidentzialtasuna bermatzeko.

#### D) Presentzia Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikorako plataforman

Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren administrazio elektronikoen estrategiaren eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko Legearen aurreikuspenen barruan, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoko Eredua erabateko lehentasunezko ekintza da.

Sistema seguru eta irisgarri, sinple baina zorrotz, eskuragarri eta eraginkor honen bidez, proposatzen da kontratazio publikoan tresna telematikoen erabilera orokortzea, euskal enpresen eta administrazio beraren lehiakortasuna eta eraginkortasuna hobetze aldera.

Udal sozietateak uste du gardentasuneko eta lehia askeko printzipioak kontratazio-prozeduren parte izan behar direla eta plataforma elektronikoa honen erabilera tresna interesgarri bat izan daitekeela ondorio horretarako.

Bidebi Basauri udal sozietate publikoak konpromiso irmoa mantentzen du aipatutako printzipioekin eta, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikoko Plataforma Elektronikoa jarraitzen du. Horri esker, 2014ko abendutik, eremu honetan esleipen-botere gisa jardun dezake.



## E) Bidebi Basauri S.L.ren Kode Etikoa eta compliance kudeaketa-sistema

Kode Etikoa udal sozietatearen jokabidea arautzen duten balioak identifikatzen eta deskribatzen dituen dokumentua da, bere izaera publikoa eta araudi aplikagarria aintzat hartuz. Horrela, bada, sozietatearen jokabide arau horiek aplikatuko zaizkio kideen barne-harreman guztiei eta beste enpresa batzuekiko, administrazio publikoekiko, bezeroekiko eta gizartearekiko harremanei ere bai.

Kode hau Bidebi Basauri SL udal sozietatearen Batzar Orokorreko, Administrazio Kontseiluko, zuzendaritzako eta langileriako kide guztiei dago zuzenduta.

Halaber, asmoa da enpresa hornitzaile eta banatzaileei, bezeroei eta herritarrei eta gizarte osoari jakinaraztea.

Dokumentua idazteko, oinarritzat hartu da Basauriko Udalak onartutako eta udal gardentasun-atarian argitaratutako dokumentua, EUDELe proposatutako eredu jarraitzen duena. Hala ere, dokumentuan sozietatearen egiturara egokitzeko beharrezko aldaketak egin dira irizpide hauen arabera:

- Gobernu-taldearen erreferentziak ordeztu dira Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritzarekin.
- Oposizio politikoaren erreferentziak ordeztu dira aipatutako organoetako oposizioaren ordezkariekin.
- Erreferentziarik orokorrenak Bidebi Basauri S.L. osatzen duten pertsona guztietara hedatu dira.

Kodea nahitaez bete behar da eta indarrean egongo da aldatu edo indargabetu egiten den arte.

Administrazio Kontseiluak aldizka berrikusiko du kodea, ofizioz edo edozein pertsonak proposatuta.

Beste alde batetik, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzeko martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa sartu da indarrean, eta, horren eraginez, pertsona juridikoen erantzukizun zibilari buruzko paradigma berria ezarri da.

Aipatutako arauak aurreikusten du pertsona juridikoek erantzukizun penala izango dutela bertako kideek egindako delituengatik, baldin eta pertsona juridiko horiekzaintza-betebeharra astunki urratu badute. Beraz, pertsona juridikoek penalki erantzun ahalko dute erakundearen jardueran beren langileek egindako delituengatik, haien gaineko kontrola behar bezala egin ez izanagatik.

Era berean, pertsona juridikoaren erantzukizun penala salbuetsita egongo da prebentzio-programa bat baldin badago (compliance kudeaketa-sistema), zeinak delituak egiteko aukera saihesti edota nabarmen gutxituko baitu. Beraz, sor litekeen erantzukizun penala salbuesteko, ezinbestekoa suertatzen da programa hori garatzea.

Horren guztiaren harira, indarreko legeria penalak ezarritako prebentzio- eta kontrol-programak garatzeko beharrezko jarduketak lehenbailehen egiteko eskaera egin zion Bidebi Basauri SLren Administrazio Kontseiluak Kudeaketako Zuzendaritzari, 2017ko martxoaren 22an. Hala egin zuen, Sozietatearen Estatutuen 14.3 a) artikulua xedatutakoarekin bat eginda.

Bada, aipatutako erabakia betetze aldera, hiru enpresari eskatu zien aurrekontua Kudeaketako Zuzendaritzak, compliance kudeaketa-sistema horren diseinua, ezarketa, jarraipena eta berrikusketa egiteko, datozen bi urteotara begira.



Horrela, bada, sistema garatu da, honako dokumentu hauen bitartez:

### **III. Eranskina: Delituak prebenitzeko eskuliburua.**

- 1. Salaketak egiteko kanala.
- 2. Baliabideen kudeaketa.
- 3. Diziplina-araubidea.
- 4.1. Administrazio Kontseilua izendatzea.
- 4.2. Kontseiluko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
- 5.1. Bidebiren arriskuen mapa.
- 5.2. Beharrezko ardura eta arrisku penalen ebaluazioa.
- 6. Bidebiren kontratazio-jarraibideak.
- 7. DBLO.
- 8. Harrera-inprimakia, jokabide-kodea eta eskuliburua.
- 9. Kudeaketa-politika.
- 10. Delituak prebenitzeko sistemaren aurrekontua.
- Organigrama, langileria eta eginkizunak.

Bidebi-Basauri, S.L.ren kontseiluak 2017ko abenduaren 14an onetsi zuen Delitu Penalak Prebenitzeko Eskuliburua, UNE 19061 "Compliance kudeaketa-sistema" Arauaren pean egiaztatutakoa. Horrek, Zigor Kodearen 31 bis artikulua ezartzen duenari jarraiki, hauxe hartzen du barne:

**I.** Identifikatzea prebenitu beharreko delituak enpresaren zein jardueratan eman daitezkeen.

**II.** Jokabide Kodea abian jartzea. Kode horrek barne hartuko ditu, batetik, pertsona juridikoaren borondatea eratzeko, hark erabakiak hartzeko eta erabaki horiek egikaritzeko prestakuntza-prozesua zehazten duten protokoloak edo prozedurak. Bestetik, prebenitu beharreko delituak egitea ekiditeko finantza-baliabide egokien kudeaketa-ereduak hartuko ditu barne.

**III.** Ereduak ezarritako neurriak ez betetzea behar bezala zigortzen duen zehapen-sistema ezartzea.

**IV.** Eredua eta haren balizko aldaketa aldizka egiaztatzea, baldin eta agerian geratzen bada horren xedapenak nabarmen hautsi egin direla edo antolakuntzan, kontrol-egituran edota garatutako jardueran egiaztatu beharreko aldaketak ematen badira.

Halaber, Betetze-ofiziala izendatzea adostu zuten; horri eskuordetu zitzaizkion sistema zaintzeko eta ikuskatzeko gaitasunak eta, gainera, eginkizun eskusiboak izango ditu. Kargu horretarako, Basauriko Udaleko aholkulari juridikoa den Antonio Laguna izendatu zuten.

2018ko urtarrilaren 1ean hasi ziren aipatutako sistema ezartzen, Sozietatearen Estatutuen 14.3 a) eta h) artikuluetan adierazitakoarekin bat eginez.

2019an zehar, 3 jarraipen-bilera egin dituzte compliance kudeaketa-sistemaren gainean, eta ez da inolako gorabeherarik edo salaketarik egon. Aurreikusita dago ofizialak horri buruzko txostena aurkeztea Administrazio Kontseiluak 2020an egiten duen lehenengo bileran.

## F) Udal sozietatearen zerbitzuen zorroa

### ZERBITZUEN ZORROA

Zer zerbitzu eskaintzen dugu?

Hirigintzako jarduketa-eremuak kudeatzea etxebizitza babestua sustatzeko.  
ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua kudeatzea.  
ASAP etxebizitza pribatuak alokatzeko bitartekaritza-programa kudeatzea.  
Ondare eraikia birgaitzeko laguntzei buruzko informazioa ematea.  
Alokatzeko eta gerora erosteko aukera duten 275 udal aparkaleku kudeatzea.  
VISESAren garajeak eta lokalak merkaturatzea.

Erabiltzaileen eskubideak:

Eguneratutako informazioa eskuratzea, horretarako ezarritako edozein bide erabilita: telefonoa, posta elektronikoa, webgunea edota zuzenean.  
Arreta egokia eta berdintasunezkoa jasotzea, eta datu pertsonalen isilpekotasuna bermatuta izatea.  
Instalazio irisgarriak.  
Ezarritako prozedura betetzea.  
Abisuak, kexak, oharrak eta iradokizunak egitea.

Erabiltzaileen betebeharrak:

Instalazioak, bertako langileak, auzokideak eta gainerako erabiltzaileak errespetatzea.  
Arreta egokia eta berdinzalea.  
Beharrezkoa den informazioa edota dokumentazioa dagokion denboran eta moduan ematea, bai eta informazio hori eguneratzea, gerora aldaketarik izanez gero.  
Lortutako akordioak eta aplikagarri den araudia betetzea.  
Lehentasunezko komunikazio-sistema zehatzea: posta arrunta, posta elektronikoa edota telefonoa.



## ETXE BIDE

### Zer egiten dugun

Sarbide-informazioa  
Alta emateko eskabideak  
Espedienteak kontsultatzea  
Aldaketak  
Harremanetarako datuak  
Bizikidetzaren unitatea  
Eskatutako udalerriak  
Eskatutako araubidea: alokairua, jabetza...  
Bi urtez behingo espediente-berritzea  
Baja emateko eskabideak  
Etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzko eskabideak

### Zer ez dugun egiten

Basaurin erroldatuta ez daudenei arreta ematea  
Etxebizitzak zozkatzea edota esleitzea  
Hutsik dauden etxebizitzetako buruzko informazioa  
Laguntza ekonomikoak izapidetzea  
Administrazio errekurtsioak


## ALOKAIRU-ETXEBIZITZEN ASAP PROGRAMA

### Zer egiten dugun

Publizitatea  
Interesdunei informazioa ematea  
Etxebizitzak atzematea  
Errentak finkatzea  
Mandatu-kontratuak sinatzea  
Errentamendu-kontratuaren kudeaketa integrala;  
kontratuaren jarraipena, berau amaitu eta deuseztatu arte  
Errentamendu-kontratuak eta beharrezko dokumentu guztiak sinatzea bultzatzea

### Zer ez dugun egiten

Basauritik kanpoko etxebizitzak atzematea eta kudeatzea  
Obrak etxebizitzetan  
Energia-efizientziari buruzko egiaztagirak  
Ordainketen jarraipena  
Etxegabetzeak





### Herritarrentzako arreta

Atal honetan, eskematikoki eta laburtuta azaltzen da Bidebi Basauri, S.L.k 2013an hasi zenetik 2019ko ekitaldira arte egindako publikoarentzako arreten kopurua. Jarduera-ildo bakoitzean, zehatz-mehatz deskribatzen da emandako arreta.

| KONTSULTA MOTA                                     | ARRETAK URTEKA |             |             |             |             |             |             |
|----------------------------------------------------|----------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
|                                                    | 2013           | 2014        | 2015        | 2016        | 2017        | 2018        | 2019        |
| Etxebide                                           | 75             | 1013        | 2276        | 1602        | 1699        | 1392        | 1580        |
| ASAP Programa                                      | 0              | 248         | 571         | 526         | 912         | 948         | 1098        |
| Birgaitzea                                         | 0              | 70          | 203         | 147         | 163         | 91          | 235         |
| WISESA (Elementuen salmenta)                       | 0              | 4           | 2           | 2           | 4           | 1           | 7           |
| Bizilagun                                          | 0              | 0           | 8           | 12          | 12          | 19          | 20          |
| Bizigune                                           | 0              | 0           | 0           | 9           | 3           | 2           | 2           |
| Soloarteko aparkalekuak                            | 0              | 0           | 71          | 161         | 111         | 195         | 277         |
| Alokabide                                          | 0              | 0           | 8           | 8           | 11          | 10          | 17          |
| Gazteentzako alokairurako diru-laguntzen programak |                |             |             |             |             | 118         | 75          |
| Bestelakoak                                        | 168            | 51          | 28          | 21          | 38          | 63          | 97          |
| <b>GUZTIRAKOAK</b>                                 | <b>243</b>     | <b>1386</b> | <b>3167</b> | <b>2488</b> | <b>2953</b> | <b>2839</b> | <b>3408</b> |

Dirudienez, egindako arreten bolumenaren bilakaeraren analisiak adierazten du zerbitzua betetzear dagoela; horregatik, aztertzen ari da langilera indartzeko aukera.



## Publizitate-ekintzak

2019ko ekitaldian zehar, zenbait publizitate-ekintza garatu egin dira, presentzia areagotzeko eta herritarrek udal sozietatearen existentziari zein horri eskatzen zaizkion kudeaketa desberdinei buruz duten ezagutza indartzeko.

- Higiezinekin lotutako produktu edo zerbitzu desberdinen eskaria sustatzea:
- VISESAren Basozelaiko promozioko azalera-erabilerako garajeen, lokalen eta Soloarteko udal aparkalekuen alokairua erosteko aukerarekin.
- Etxebizitzak lortzea ASAP programarako.
- Jabeen erkidegoek birgaitze-jarduerak egitea sustatzea.
- Sozietatearen jarduketaren berri ematea administrazio publikoko eta enpre-setako langileen artean eta jarduera-sektore honetako profesional eta langi-leen artean.

Zentzu horretan, Bidebi Basaurik kudeaketa hauek burutu ditu:

- BIDEBI BASAURIren eta Basauriko Udalaren instalazioetan informazio-liburukiak uztea:
  - Sozietatearen zerbitzuen zorroa.
  - Eraikinen Ikuskapen Teknikoa.
  - ASAP Programa.
  - VISESArentzat Basozelaiko promozioan merkaturatutako elementu libreak.



- Espainiako zein Euskadiko AVS Elkarteen webguneetan eta BIDEBI BASAURIren webgunean albisteak iragartzea.
- Posta elektroniko korporatiboak bidaltzea ohiko harremana dugun pertsoneri, enpresei eta erakundeei. Adibidez, urteko memoria egin dela jakinaraziz, zigor-arloko prebentzio-sistema ezarri dela adieraziz, etab...



## Ekitaldietara, ikastaroetara eta jardunaldietara joatea

### AVS Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiako Elkarte

- AVS Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiako Elkartearen euskal atalaren bilera ospatu zen 2019ko urriaren 11n, hain zuzen ere, Bilboko Udal Etxebizitzen egoitzan (OAL, Bilbo).

### Lurralde-antolamendua

- Kantabriako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta FUNDICOTek 2019ko martxoaren 13, 14 eta 16an Santanderren antolatutako Lurralde-antolamenduko IX. Nazioarteko Kongresua.

### Hiri-berroneratzea eta birgaitzea

- Bilera bat egin zen Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza eta Birgaitze Sozietateekin 2019ko maiatzaren 28an, Lakua II.n, Gasteizen, birgaitzearen eremuko araudi-proiektuak eta politika publikoak jorratzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, 2019ko azaroaren 18an, Lakua II.n, Gasteizen, antolatutako birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren eremuan babes daitezkeen jarduketan inguruko agindu-proposamenari buruzko lantegia.



### Hirigintza

- Hirigintza-zuzenbideko Aldizkariak eta Kantabriako Gobernuak Santanderren 2019ko ekainaren 6an antolatutako jardunaldia gai honen inguruan: “XXI. mendeko hirigintza: funtzio publiko bat herritarren zerbitzura”.

### Kontratazioa

- AVS Elkarteak 2019ko azaroaren 12an Bilboko Bursaren eraikinean antolatutako Kontratuen Legeko sektore publiko instrumentalaren kontratazioari buruzko jardunaldia.

2019an zehar, zenbaitetan aipatu dute Bidebi prentsan eta beste komunikabide batzuetan.

## La oposición basauritarra exige un informe sobre los primeros números de Kareaga Goikoa

PSE, Basauri Bai y PP quieren conocer el estado real del edificio que en 2014 ya fue incluido en una memoria de zonas degradadas

DE LEIRE PÉREZ

BASAUURI. A punto de cumplirse un año de que el Ayuntamiento de Basauri anunció que estaba trabajando para implicar al Gobierno vasco en la regeneración de los primeros números de Kareaga Goikoa, la mayoría de la oposición ha unido sus fuerzas para forzar una intervención en la zona. Consideran que los vecinos «no pueden esperar» a que el asunto se solucione en los despachos y urgen al ejecutivo local a «por lo menos dar una solución momentánea».

PSE, Basauri Bai-Podemos y Partido Popular han requerido de forma conjunta la realización de un «informe que aclare el estado de los edificios y que puntualice si están en ruina y por lo tanto es peligroso residir en ellos». Según explica el portavoz del PP, Gabriel Rodrigo, «un tercio de los concejales pueden solicitar al alcalde que elabore un informe». Su intención es, posteriormente, con los resultados ya por escrito, pedir al ejecutivo local que actúe «lo antes posible». «Cualquier día puede haber una desgracia», advierte el edil popular. «El Ayuntamiento tiene que implicarse y realojar a los vecinos si hay un peligro



El bloque de viviendas de Kareaga Goikoa presenta un aspecto de abandono. DE E.

inminente porque la solución que propone es a largo plazo», solicita Boby Galdes desde Basauri Bai-Podemos.

Desde 2014

En 2017, el grupo del PP solicitó un primer informe municipal para conocer en qué estado se encontraba el inmueble. Ya entonces, alertaban sobre la situación al tiempo que temía un caso como el que tuvo lugar en el barrio bilbaíno de Zorzoa

donde fallecieron cinco personas en un incendio. En 2014 la sociedad municipal Bidebi incluyó los edificios de Kareaga en una memoria de

**El Ayuntamiento y el Gobierno vasco trabajan para realojar a los vecinos del bloque**

zonas degradadas, aunque sus responsables apuntaban que parte de ella era «viable». Concretamente la que afecta a los números 1, 3, 5 y 7 por incluir 17 reales. En el resto de números no habría mayor problema, porque no hay actividad y los edificios están vacíos.

En los últimos meses el Ayuntamiento trabaja para que el Ejecutivo autonómico construya nuevas viviendas y proceda a los realojos en una unidad de ejecución para la que

